

Gaia: 6/2017

**(...) (...) ZERBITZUBURUAK EGINIKO KONTSULTARI BURUZKO EBAZPENA,
GABONETAN JASOTAKO OPARI BATEN INGURUAN**

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordera (EEB) 2017ko abenduaren 20an igorritako posta elektronikoko bidez, interesdunak EEBren esku hartzea eskatu du, Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) parte den Q-epa izeneko sarearekin elkarlanean aritzen den enpresa baten aldetik jaso duen Gabonetako opariari eman behar dion erabilerari buruz zer iritzi duen jakiteko.

2.- Eskatzaileak bere idatzian adierazten du GFA Q-epa sarearen (Euskadiko erakunde publikoen sarearen) barruan dagoela eta bertan aktiboki parte hartzen duela (...) Zerbitzuaren bitartez. Sare honen baitan hainbat lan talde ari dira lanean, besteak beste, Irudia eta Markari buruzko taldea (zeinetan parte hartzen baitu GFAk), talde hori izanik bai sarearen web orria bai irudi korporatiboaren elementu batzuk hainbat ekitalditarako enkargatu dizkiona (...) enpresari, bera izanik interesdunari opari bat igorri diona Gabonetako jai ospakizunekin bat, hau da, 6 txokolate tableta bi kaxatan bananduta. Bestalde, aipatutako enpresarekin daukan lotura bakarra hori dela adierazi du.

3.- Jasotako opariari eman behar dion erabilerari buruz EEBren iritzia zein den jakin nahi du interesdunak.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna erakundearen ezaugarri gisa finkatu nahian.

Aipatutako sistemaren esparruan, Diputatuen Kontseiluak 2017ko azaroaren 7an hartutako erabakiz, Gipuzkoako foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (aurrerantzean Etika Kodea) onartu zen, kode honen arabera ezarrita geratzen

baitira foru enplegatu publikoek euren zereginekin lotura duten jarduera guztietan kontuan izan beharreko balio etikoak, jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jokabide arau profesionalak.

2.- Kode Etikoaren arabera, EEB (martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretu bidez sortua) izango da bermerik handieneko organoa eta kodea aplikatzeari dagozkion gaiak hobekien ezagutuko dituena.

Kode Etikoarekin zerikusia duten gaiak ebazteko, langileriaren ordezkariak batuak izendatutako gizabanako bat izango da organo horretako kide.

3.- Aipatutako foru dekretuaren arabera, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzea xede duten baliabideetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako keak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea EEBri dagokio.

4.- Eskatzaileari –Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publikoa izaki– Kode Etikoa aplikatuko zaio, xede hori ezarrita daukan Kode Etikoaren 1.1 artikulua betez.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Euskal erakunde publikoek osatutako talde batek sortu zuen Q-epea sarea 2002an, Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren lankidetzaz, honako helburu hauekin: kudeaketa-jardunbide onak partekatu eta zabaltzeko ekimenak elkarrekin bultzatzea, lan dokumentuak modu irekian trukitzea, beste erakunde publiko eta pribatu batzuk gonbidatzea esperientziak partekatzea eta zabalkunde ekitaldi publikoak elkarrekin antolatzea, eta abar; hori guztia kudeaketan bikaintasuna bilatzeko konpromisoarekin.

Gaur egun euskal sektore publikoko 30 erakunde daude sarearen barruan, zeinek, lan talde batzuk lagun, hainbat gai jorratzen baitituzte, besteak beste, (...), eta abar. GFaren barruan gai horien guztien ardura duena (...) Zerbitzua da; beraz, interesdunak bertan duen parte hartzea aski justifikatzen du horrek.

2.- Kode Etikoak zuzentasunaren balioa zedarrizten du, eta honela dio "euren funtzioak burutzean eragina izan dezaketen eta euren jarduera profesionalaren osotasunaren gaineko arrazoizko zalantzak planteatu ditzaketen **kanpo eraginak ekidingo dituzte**. Zehazki, *pertsona edo entitate jakin batzueganako faboritismo susmoa eragin dezaketen*



jarduerak ekidingo dituzte".

Bestalde, inpartzialtasun eta objektibotasun balioei buruz honako hau dio "... *inpartzialtasuna da foru enplegu publikoaren instituzioaren izateko arrazoia, eta beraz, bere jarduera profesionala eragin eta orientazio politikoetatik eta bestelakoetatik urrun egon beharko du* , eta "... *objektibotasun hori bereziki intentsua izango da botere publikoek erabaki zehatzak hartzeko inpartzialtasuna zaintzea bereziki exijitu beharreko kasuetan parte hartu behar dutenean*".

Baina, interesdunari sortzen zaion arazoa edo zalantza bereziki dator Kode Etikoan berez ezarrita dagoenagatik, zintzotasunari eta interesik ezari buruz hauxe esaten baitu "... *foru langile publikoek ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezaketen opari edo onurarik onartuko*, edota bere lana dela eta esku hartu behar duen prozedura edo jardunetan bere lan jarduera baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeela ematen duenean... "

Zehatzago esanda, balio etikoekin loturiko jokabide arauak adierazten dituen epigrafeak, bere 2.3 puntuan zintzotasuna eta interesik eza jorratzen dituzte, ondokoa dio:

g) *Foru langile publikoek ez dute oparirik, gonbidapenik, bidaiarik, janaririk edo konpentsazio ekonomikorik onartuko hitzaldiak emateagatik edo komunikabideetan parte hartzeagatik, berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotutako jarduerak direnean, eta modu berean ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezakeen onurarik onartuko, edo erabakiak hartzea baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeela ematen duen bere eskumeneko gaietan parte hartuko*. Berme organoak, kontsulta edo kexen bidez, opari, konpentsazio edo onura horiek onartu daitezkeen kasuak ezarriko ditu. Salbuespen horiek Kode honen Ezarpen Gidan berariaz jasoko dira.

h) *Edozelan ere, foru langile publikoek, erakundearen irudia babesteko asmoz, euren ardura publikoen eremu zehatzean kontratatuak izan diren edo objektiboki kontratatuak izan daitezkeen enpresa edo partikularren opari, gonbidapen, kongresuetan edo hitzaldietan parte hartzeko eskaintzak ukatuko dituzte*. Oparia edo gonbidapena emango balitz, berehala foru administrazioaren edo sektore publikoko erakundearen esku jarri beharko litzateke, dagokiona egiteko.

(...)

j) *Horren gaineko edozein zalantza berme organoko langile publikoari helarazi beharko zaio ezartzen diren bideetatik, eskaria konfidentzialki izapidetzeko eskatu ahalko duela*.

EEB honen iritziz, bi gai dira aztertu beharrekoak; alde batetik, aipatutako opariaren eragin gaitasuna, eta beste alde batetik, opariaren kondizio edo izaera.

Aipatu bezala, interesdunak, (...) Zerbitziburua den aldetik, GFA ordezkatzeko du Q-epea sarean, zeina, lehenago adierazi den bezala, euskal sektore publikoko 30 entitatez osatua baitago. EEB honek jakin duenez, lan arlo jakinen arabera finkatuta dauden lan talde aipatuez gain, sareak, ohikoa izaten den bezala, baditu gobernu eta kudeaketa organo batzuk. Alde batetik, erabakirik garrantzitsuenak hartzeko orduan, Osoko Bilkura da antolamendu nagusia sareko kideentzat; eta, beste alde batetik, badago Gobernu Batzorde bat, sareko 4 erakundek osatua eta 3 urtean behin txandakatu egiten dena, hura bera izanik erabakirik eraginkorrenak hartzen dituena. GFA Gobernu Batzordeko kide izan da azken 3 urteetan, eta Batzordeak 2017ko abenduaren 13an egindako azken bilkuran erabaki zen, ezen, GFAk (eta EJIk -Eusko Jaurlaritzaren Informatika Taldea-) 2018ko urtarrilaz geroztik Q-epeako gobernu batzordeko kide izateari utziko ziola, 3 urte bete baitira bertako kide izatea egokitu zitzaionetik.

Beraz, interesdunari 6 txokolate tableta igortzeak sarearen jardueran izan lezakeen eragin gaitasuna nahiko urria dela dirudi, Q-epea sarearen baitan har daitezkeen edo hartu ahal izan diren erabaki garrantzitsuak (esaterako, kontratuak esleitzea) haren esku bakar-bakarrak ez baitira inoiz egon eta hemendik aurrera, are eta gutxiago.

Baina harago joz, planteatu liteke ea 6 txokolate tabletaz osaturiko opari bat ba ote den enplegatutako publiko baten jarduera profesionalari eragiteko lain, edota kortesiazko opari bat baino ez ote den, ospakizun baten kariatz gorria.

Ez da erraza zehaztea noiz jo daitezkeen berez oparizat eta noiz kortesiazko oparizat, zeren, beste Administrazio batzuetan (adibidez, Galiziako Xuntan edo Madrileko Udalean) ez bezala, Kode Etikoak ez baitu ezartzen erreferentzia gisa balio dezakeen diru atalaserik, hortik aurrera oparirik onartu ezin izan dadin; aitzitik, orain arte ikusi den bezala, zera dio, berme organoak kontsulten edo kexen bitartez ezarriko duela horrelako opari, ordain edo mesedeak noiz izan daitezkeen onargarriak eta noiz ez; eta salbuespen horiek berariaz geratuko dira jasota Kode Etikoaren aplikazio-gidan.

EEB honen iritziz, zaila da diru atalase bat finkatzea, egoera bakoitzaren zertzeladak dagokion testuinguruaren barruan sartzea beharrezkoa dela uste dugulako, hain zuzen, opariak diru aldetik duen balioa bakarrik kontuan hartu beharrean; hori dela eta, sor daitezkeen arazoak behin aztertuta, kontsulten xede diren opariak onartzeko edo ez onartzeko irizpideak finkatuko dituen EEB hau izatea begi onez ikusten dugu.

Esan bezala, egoera bakoitza bere testuinguruan kokatu nahirik, opari hau Gabonetako jai egunen erdian jaso dela azpimarratu behar dugu eta, jakina denez, gure ingurune



sozialean sakon erroturiko ohitura da enpresek data seinalatu batzuetan kargudun edo enplegatu publikoei opariak egitea, dela formaltasun hutsez dela kortesia hutsez; hori dela eta, opari honek gure kulturaren ohiturak eta kortesiazko adierazpideak aintzat hartzen dituela ondoriozta liteke.

Ezin dugu alde batera utzi proportzioaren zentzua eta opariak norainoko eragin txarra ekarriko dien langile publikoak betetzen dituen eginkizunei edota zerbitzatzen duen erakundearen inpartzialtasun eta zuzentasunaren irudiari, edota iritzi publikoak hori ikusiko ote duen herritarren Erakundearekiko konfiantza higatzen duten elementu gisa. Hortaz, sen on pixka bat erakustea eta proportzionaltasun printzipioari jarraitzea da kontua.

Era berean, opariaren diru balio txikia ere ezin dugu albora batera utzi, 6 txokolate tableta alegia, zeren, nolana ere, hain balio urrikoa den kortesiazko keinu horren truke norbaitek mesede tratu bat planteatu nahi duela pentsatzea ez baita oso sinesgarria.

3.- Ideia honekin bat, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Legearen testu bategina onartzen duenak, ondokoa dio bere 54. artikuluan:

54. artikulua.- Jokabide-printzipioak

*6. Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, **gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte**, betiere, Zigor Kodeari kalte egin gabe.*

Hori guztia aintzat harturik, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Lehena.- 2.3 artikuluan arauturik dauden zintzotasunari eta interesik ezari buruzko balio etikoekin lotutako jokabide arauen h) eta j) letretan Kode Etikoak ezarritakoaren arabera jokatu du interesdunak, oparia berehala jarri baitu foru Administrazioaren esku eta EEB honengana jo baitu kontsulta eske.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen eta bere sektore publikoaren Zuzentasun Sistemari jarraikiz, 6 txokolate tableta onartzeak ez du urratzen Gipuzkoako foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea.

Donostia, 2017ko abenduaren 27a.

Erakundearen Etika Batzordeko burua,

Imanol Lasa Zeberio